



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko azaroaren 8a

34. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Garesko Udalak sustaturiko “Gares Energia” trantsizio energetikorako proiektu aitzindariaren finantzatze-beharrizanei aurre egiteko (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, erlijioaren irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baitira, erlijioaren irakaskuntzari dagokionez, Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

—Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa. Zuzenketak aurkezteko epea (7. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, Nafarroako errepideen sareko bideetan bidesariak ordaintzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Interpelazioa, Nafarroako landa eremuetako despopulaketari aurre egiteko aurreikusitako neurrien eta planen gaineko politika orokorrari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Interpelazioa, errepide-bidaiariaren hiriarteko garraioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideei ekin diezaien Noain-Iruñeko aireportuari “Virgilio Leret aireportua” izena jartzeko. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztu du (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun barruti berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Autismoaren Nafarroako Elkartek autismoa duten pertsonentzat terapia nahiz hezkuntza arloan daukan udako, Eguberrietako eta Aste Santuko eskolaren proiekturako aurrekontua. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da taxutu ditzan kulturarteko bizikidetasun plan bat eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako plan bat, eta batzorde bat sor dezan migrazio-politikatako jarduketak koordinatu, berrikusi eta hobetzeko. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, izapidetzen ari diren hirigintza-planei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeak duen kostuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Buztintxuriko osasun etxearen proiektuaren kostuari buruzkoa, zentro horri larrialdi-zerbitzua gehitzea erabaki ondoren. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (17. or.).
- Galdera, hurrengo deialdietarako BAME-en eskaintzari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (18. or.).
- Galdera, 65 urterekin nahitaez erretiroa hartzeari dagokionez 2020rako Aurrekontuei buruzko Legean Nafarroako Gobernuak egiten duen planteamenduari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitalegunea-B-ko aldageletara sartzeko eraikinean itsatsita dauden ELA-LAB-STEILAS-ESK-EHNE-Etxalde-Hiru erakundeen afizei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Buztintxuriko Osasun Etxean larrialdiak artatzen hasteko proiektuari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 4/2019 Foru Lege Dekretua, urriaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri batzuk onesten dituen (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Garesko Udalak sustaturiko “Gares Energia” trantsizio energetikorako proiektu aitzindariaren finantzatze-beharrizanei aurre egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2019ko urriaren 30ean hartutako Erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: “Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Garesko Udalak sustaturiko ‘Gares Energia’ trantsizio energetikorako proiektu aitzindariaren finantzatze-beharrizanei aurre egiteko”.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea aipatu foru lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia (10-19/LEY-00010).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Garesko Udalak sustaturiko “Gares Energia” trantsizio energetikorako proiektu aitzindariaren finantzatze-beharrizanei aurre egiteko

ZIOEN AZALPENEA

Beharrezkoa da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren aurrekontu-kontsignazioak egokitzea Garesko Udalak sustatu duen “Gares Energia” trantsizio energetikorako proiektu aitzindaria finantzatzeko beharrei aurre egiteko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago edo kontsignatutakoa aski ez bada, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, kreditu berezi bat emateko foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari.

Era berean, foru lege honek, partida izenduna sortuz, Garesko Udalarri zuzeneko dirulaguntza bat ematea ahalbidetzen du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan xedatutakoarekin bat.

1. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

320.000 euroko kreditu bat ematen da Garesko Udalak sustatu duen “Gares Energia” trantsizio energetikorako proiektu aitzindaria finantzatzeko beharrei aurre egiteko.

Kreditua aurrekontuko partida honi aplikatuko zaio: 820001 82200 7609 425210 partida, Gares-

ko Udala. Gares Energia proiektua: instalazio fotovoltaikoa.

2. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezia 320.000 eurokoa izanen da, eta partida honen kargura ordainduko da: 820001 82200 7609 425206 (E) Transferentzia Garesko

Udalari. Ermineta minizentral hidroelektrikoa eta inguruak errekueratzea.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, erlijioaren irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2019ko urriaren 31n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea erlijioaren irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzko Foru Lege proposamena. Foru Lege proposamen hori Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkeztu zuen, eta 2019ko irailaren 27ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/PRO-00014).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin erlijioaren irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzko Foru Lege proposamena.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2019ko abenduaren 2ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte proposamenari.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baitira, erlijioaren irakaskuntzari dagokionez, Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2019ko urriaren 31n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen honako lege proposamen hau aintzat hartzea: "Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baitira, erlijioaren irakaskuntzari dagokionez, Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa". Lege proposamen hori Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu zuen, eta 2019ko irailaren 13ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea aipatu lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin (10-19/PRC-00002).

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2019ko abenduaren 2ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte proposamenari.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2019ko urriaren 31n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen honako lege proposamen hau aintzat hartzea: "Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa". Lege proposamen hori Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkeztu zuten, eta 2019ko irailaren 20ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea aipatu lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin (10-19/PRC-00003).

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurralde Kohesiorako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2019ko abenduaren 2ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte proposamenari.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Nafarroako errepideen sareko bideetan bidesariak ordaintzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako errepideen sareko bideetan bidesariak ordaintzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak Nafarroako errepide-sareko bidesarien arloan darabilen politika orokorra azal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Interpelazioa, Nafarroako landa eremuetako despulaketari aurre egiteko aurreikusitako neurrien eta planen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako landa eremuetako despulaketari aurre egiteko aurreikusitako neurrien eta planen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Interpelazioa, Nafarroako landa eremuetako despopulaketari aurre egite aldera zure Departamentuak aurreikusitako neurrien eta planen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Interpelazioa, errepide-bidaiarien hiriarteko garraioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa, errepide-bidaiarien hiriarteko garraioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Interpelazioa, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraioaren arloan Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideei ekin diezaien Noain-Iruñeko aireportuari “Virgilio Leret aireportua” izena jartzeko.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren izapideei ekin diezaien Noain-Iruñeko aireportuari “Virgilio Leret aireportua” izena jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

1936ko uztailaren 18ko egunsentian, Melillan erail zuten Virgilio Leret –iruindar militarra, ingeniaria, hegazkinlaria eta erreakzio-motorraren asmatzailea bera–, II. Errepublikako Gobernuarekiko leiala izateagatik. Leret izan zen matxinatuek exekutaturako Armadako lehen ofizialeko bat. Hori dela-eta, uste dugu haren memoria ohortzeko unea iritsi dela, Noain-Iruñeko aireportuari “Virgilio Leret Aireportua” izena jarrita.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren izapideei ekin diezaien Noain-Iruñeko aireportuari “Virgilio Leret aireportua” izena jartzeko.

Iruñean, 2019ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun barruti berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita oinarrizko osasun barruti berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun barruti berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan.

Tuteran bi osasun etxek ematen dute oinarrizko osasun laguntza: “Santa Ana” edo “Tutera Ekialdea” eta “Gayarre” edo “Tutera Mendebaldea”. Osasun etxe horiek duela 25 urte baino gehiago eraiki zirenetik, Tuterako populazioa % 30 hazi da, batik bat hiriaren erdialdean eta Lourdesko auzoan. Alderdi horietan, 65 urtetik gorako bizilagunak % 20 baino gehiago dira. Lourdesko auzoko populazioarentzat Tuterako beste alderdi batzuetako populazioarentzat baino zailagoa da lehen laguntza-mailako osasun baliabideetara iristea, eta horrek inekitate sortzen du, bereziki nabarmena dena bakarrik bizi diren pertsona nagusien kasuan edo joan-etorrian ibiltzeko zailtasunak dauzkatenen kasuan.

Gaur egun, Tutera Mendebaldeko osasun etxeak 13.000 biztanle inguru artatzen ditu, eta Tutera Ekialdekoak, berriz, 24.000 biztanle inguru. Lourdesko auzoko populazioa Tutera Ekialdekoak artatzen du.

Kalitatezko osasun laguntza eta berritzailea bermatu ahal izateko, bi osasun etxe horien azpiegiturak handitu eta modernizatu beharra dago, egiteko hori geroratu egin baita aldiro.

2018ko urtarrilaren 30ean, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean hitzeman zuen urte amaieran esleituko zuela Tutera Ekialdeko osasun etxea handitzeko proiektua eta hasiko zirela obrak.

Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Udalak 2018ko urrian aurkeztu zuten berrantolaketa-plan bat, zeinean aurreikusten baitzen 2019ko urtarrilean hastea Tutera Ekialdeko osasun etxeak obrak, 2019ko lehen seihilekoan esleitzea Tutera Mende-

baldekoa handitzeko proiektua eta bigarren seihilekoan hastea obrak.

2019ko urriaren 24ko Osoko Bilkuran izandako parte-hartzean, Osasuneko kontseilariak beste aurreikuspen bat eman zuen Tutera Ekialdeko osasun etxearen proiektua esleitzeko –2020aren hasieran–, inolako konpromisorik hartu gabe Tutera Mendebaldekoa handitzeko datari eta Lourdesko auzoan osasun etxe berri bat eraikitzeari dago-kienez.

Oposizioan emandako azken urteotan zehar, UPNk, PPK eta PSNk defendatu dute Tuteran beharrezkoa dela hirugarren osasun etxe bat Lourdesko auzoan.

PSNk eta Navarra Sumak Nafarroako Gobernurako eta Tuterako Udalerako azken hauteskundeetarako beren hauteskunde-programan jaso zuten hori guztia.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Tuterako osasun eskualdea berrantola dezan, halako moduan non hobetu egingen baita oinarrizko osasun laguntzako zentroetarako irisgarritasuna, Erriberako hiriburuan Tutera Ekialdeko eta Tutera Mendebaldeko osasun etxeak eraiki zirenetik izandako populazioaren ioerara egokitzeke.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Tuteran hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan, Lourdesko auzoan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2020ko aurrekontuan aurrekontu-partidak jaso ditzan Lourdesko auzoan osasun etxe berri baten proiektua esleitzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2020ko aurrekontuan aurrekontu-partidak jaso ditzan Tutera Ekialdeko eta Tutera Mendebaldeko osasun etxeak handitzeko obrak lehenbailehen hasteko.

Iruñean, 2019ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Autismoaren Nafarroako Elkarteak autismoa duten pertsonentzat terapia nahiz hezkuntza arloan daukan udako, Eguberrietako eta Aste Santuko eskolaren proiekturako aurrekontua.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita handitu dezan Autismoaren Nafarroako Elkarteak autismoa duten pertsonentzat terapia nahiz hezkuntza arloan daukan udako, Eguberrietako eta Aste Santuko eskolaren proiekturako aurrekontua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Eskolarik gabeko aldietan, Nafarroan ez dago autismoa duten eskola-adineko pertsonentzat hezkuntzaren eta terapiaren arloan esku hartzeko baliabiderik (terapia-irakasleak, logopedak edo zaintzaileak).

Adituek eta familiak diotenez, aldi horietan desikaskuntza, desegituratzea, jarrera disruptibak, antsietatea eta atzera-egitea gertatzen dira. GNO gelan edo ikastetxe berezian egunean 8 orduko esku-hartzea duen neska-mutikoa inolako esku-hartzerik ez izatera igarotzen da. Badira azterlanak egiaztatzen dutenak ezen esku-hartzea frenatzen bada autismoa duten neska-mutikoek nabarmen atzera egiten dutela irabazitako trebetasun guztietan. Neska-mutiko horiek zailtasun handiak dauzkate imitazioz ikasteko; hau da,

ikaskuntza oro zuzendu eta modelatu behar da. Horregatik, zaila da eskolen udalekuak edo kanpalekuak bezalako udako jardueretara joan ahal izatea, zeren, salbu eta haiekin banan-banan lan egiten duen monitore bat –autismoan aditua– edukita, ez bailukete ez ikasi ez gozatu ere egiten, falta izanen lituzketelako jolasean hasteko edo gainerakoekin gizarte-interakzioan jarduteko behar diren trebetasun sozialak.

Hori, zoritxarrez, ez da gaur egun existitzen, eta Autismoaren Nafarroako Elkarteak horregatik dei egiten die erakundeei neska-mutiko horiekiko esku-hartzea mantendu ahal izatea eskolarik gabeko aldietan –zehazki, udan, Eguberrietan eta Aste Santuan–, halako moduan non ez baitute atzera egiten gizarte- nahiz komunikazio-trebetasunen ikaskuntzan. Halatan, neska-mutiko horiek curriculum-ikaskuntza egokirako behar duten egitura mantentzen dadila eskatzen du, haurtzaroko eta nerabegaroko plastikotasun zerebrala aprobetxatu ahal izateko eta ikaskuntzak bultzatzeko eta sendotzeko. Zehazki, kasu honetan, trebetasun funtzionalen ikaskuntza, modu egituratuan, aire libreko nahiz barneko egoeretan; trebetasun sozialen ikaskuntza: ikastetxean beste neska-mutiko batzuekin sozialitzatzeko ezagutu behar dituzten haur-jolasak, baina berariazko metodo baten bidez ikasi behar dituztenak, ikusizko irudien eta gorputz-modelatzearen nahiz autonomia-jardueren bidez hain zuzen ere.

Abantailak ugariak dira. Elkarteak ongi dioenez, esan daiteke ezen Autismoaren Nafarroako Elkarteak autismoa duten pertsonentzako daukan udako-Eguberrietako-Aste Santuko eskolaren proiektua jardunbide egokien eredu bat dela, Nafarroako erakundeek beste erkidego batzuetara “esportatzen” ahal dutena.

Gauzak horrela, eta proiektu horren ontasunean sinesten dugulako, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du 2017an hasitako bidea egiten jarrai dezan eta handitu dezan Autismoaren Nafarroako Elkarteak autismoa duten pertsonentzat terapia nahiz hezkuntza arloan daukan udako,

Eguberrietako eta Aste Santuko eskolaren proiekturako aurrekontua, erabiltzaile guztientzako doakotasuna bermatu ahal izateraino.

Iruñean, 2019ko urriaren 29an

Foru parlamentariak: Javier Lecumberri Urabayen, María Solana Arana eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da taxutu ditzan kulturarteko bizikidetasun plan bat eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako plan bat, eta batzorde bat sor dezan migrazio-politiketako jarduketak koordinatu, berrikusi eta hobetzeko.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita taxutu ditzan kulturarteko bizikidetasun plan bat eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako plan bat, eta batzorde bat sor dezan migrazio-politiketako jarduketak koordinatu, berrikusi eta hobetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gizarte moderno orok duen jomuga da arrazakeriaren aurkako kulturarteko bizikidetasuna, ongi jabetzen baita migrazio-fenomenoaren errealitateaz eta herrialde batetik besterako pertsonamugimenduak berekin dakarrenaz.

Izan ere, proiektzio demografikoen bidez ikus daiteke zer garrantzitsua den immigrazioa Europaren etorkizunerako, bai eta bertako ongizate-araubideari eustea ere. Europar Batasuna osatzen duten herrialde guztientzat egin den azken proiektzioan –2060ra bitartekoan– bi agertoki planteatzen dira: bata, immigrazioarekin; bestea, immigrazioerik gabeko agertoki hipotetikoa.

Gaur egungo ugalkortasun-tasa orokor txikiak eta zahartze progresiboa ikusita, Europako populazioak jaitsiera drastikoa izanen du –2015ean 502 milioi pertsonakoa izatetik 2060an 431 milioikoa izaterainokoa–, baldin eta heldu diren hamarkadetan Europar Batasunean ez bada izaten belaunaldi-ordezkapena bermatzen duen migrazio-fluxurik.

Argi dago agertoki hori irreal dela, baina nabarmen uzten du beharrezkoa dela beste jatorri batzuetako pertsonak gurera etortzea, zeren, bestela, desagertu egingen baita egungo ongizate-erdua.

Inondik ere, analisi hori Nafarroari aplikatzeko modukoa da; izan ere, Nafarroako populazioaren bostenak 65 urte baino gehiago dauka jadanik, eta Nafarroa da Europar Batasunean bizi-itxaropen handieneko erregioetako bat.

Immigrazioa aukera gisa joz, berariazko planak egin behar dira pertsona migratzaileak Nafarroan egiaz gizarteratu daitezen aldezteko, gurean bizikidetasuna aberastu dadin halatan.

Erabaki proposamena:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kulturarteko bizikidetasunera-

ko plan bat taxutu dezan albait lasterren, erkidego-ikuspuntu batetik, zeinaren arabera auzo eta herri bakoitzean bizilagun guztiekin egingen baita lanketa.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako plan bat taxutu dezan, zeinean sartuko baita gisa horretako delituen biktimentzako informazio- eta salaketa-bulegoa.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du batzorde bat sor dezan, Nafarroako Gobernuaren beste departamentu eta arlo batzuek osatua (eskubide sozialak, hezkuntza, osasuna, NBI...), migrazio-politiken arlo guztietako jarduketak koordinatu, berrikusi eta hobetuko dituen.

Iruñean, 2019ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, izapidetzen ari diren hirigintza-planei buruzkoa.*FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, izapidetzen ari diren hirigintza-planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Zenbat eta zer hirigintza-plan ari dira izapidetzen une honetan?

– Noiz abiarazi da horietako bakoitza?

– Zertan da da horietako bakoitzaren izapidea?

– Zertan da onesteko dauden Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Ereduen izapidea? Noiz abiarazi ziren horien espedienteak?

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Zein izan da oinarrizko gizarte zerbitzuetan Tramit@ sistema ezartzeko egutegia? Oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzean noiz ezarri den jakin nahi dut.

2. Osasun etxe guztietan ezarri al da Tramit@ sistema?

Baiezkoan, osasun etxe bakoitzean noiz ezarri den jakin nahi dut. Ezezkoan, zer tresna jarri da haien eskura mendekotasuna baloratzeko eskabi-deak egin ahal izan ditzaten? Osasun etxe bakoitzean tresna hori noiz ezarri den, baldin eta ezarri bada.

4. Zer egin da mendekotasuna duten pertsonentzako denbora errealeko informazio sistema ezartzeko? Egutegiaren arabera zerrenda eskatzen dut.

5. Zer egin da Mendekotasunaren Arretarako Informazio Sistemaren jarraipen sistematizatuko eredu ezartzeko? Egutegiaren arabera zerrenda eskatzen dut.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeak duen kostuari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeak duen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Zenbat kostatu du oinarrizko gizarte zerbitzuetan Tramit@ sistema ezartzeak? Kostu hori oinarrizko gizarte zerbitzuen arabera eta urtez urte xehakatzeari eskatzen dut.

2. Aurrekontuko zer partidaren kargura ordaindu da kostu hori?

3. Zer kostu izan du mendekotasuna baloratzeko eskabideak egiteko osasun etxeetan Tramit@ sistema edo tresna alternatibo bat ezartzeak? Kostu hori oinarrizko osasun etxeen arabera eta urtez urte xehakatzeari eskatzen dut.

4. Aurrekontuko zer partidaren kargura ordaindu da kostu hori?

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Buztintxuriko osasun etxearen proiektuaren kostuari buruzkoa, zentro horri larrialdi-zerbitzua gehitzea erabaki ondoren.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Buztintxuriko osasun etxeari larrialdi-zerbitzua gehitzea erabaki ondoren proiektuak duen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zer kostu du Buztintxuriko Osasun Etxea birmoldatzeko proiektuak, zentro horri larrialdi-zerbitzua gehitzea erabaki ondoren?

Xehetasunak plan funtzionalari, administrazio-izapideei eta aurreikusitako ekintza-kronogramari buruz.

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, hurrengo deialdietarako BAME-en eskaintzari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, hurrengo deialdietarako BAME-en eskaintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Osasun Departamentuak zer asmo dauka legegintzaldi honetan zehar egingen diren deialdietan BAME-en eskaintzari dagokionez?

Parlamentari naizen honek orobat jakin nahi dut Nafarroan 2007tik hona eskaini diren BAME-en xehetasuna, urtez urte.

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, 65 urterekin nahitaez erretiroa hartzeari dagokionez 2020rako Aurrekontuei buruzko Legean Nafarroako Gobernuak egingen duen planteamenduari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, 65 urterekin nahitaez erretiroa hartzeari dagokionez 2020rako Aurrekontuei buruzko Legean Nafarroako Gobernuak egingen duen planteamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zer asmo dauka 2020ko aurrekontuen legean 65 urterekin nahitaez erretiroa hartzeari begira?

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako Ospitalegunea-B-ko aldageletara sartzeko eraikinean itsatsita dauden ELA-LAB-STEILAS-ESK-EHNE-Etxalde-Hiru erakundeen afixei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ospitalegunea-B-ko aldageletara sartzeko eraikinean itsatsita dauden ELA-LAB-STEILAS-ESK-EHNE-Etxalde-Hiru erakundeen afixei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristi-

na Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Duela gutxienez ere 12 egunetik daude paratuta ELA-LAB-STEILAS-ESK-EHNE-Etxalde-Hiruren afixak Nafarroako Ospitaleguneko aldageletara sartzeko eraikinean, pediatriako larrialdietarako sarreraren ondoan hain zuzen ere. Afixak Kataluniako independentzia prozesuari, Altsasuko kasuaren epaiari eta erabakitzeko eskubi-dea dela-eta urriaren 18an egin beharreko elkarretaratzeari buruzkoak dira. 2019ko urriaren 30ean hor jarraitzen dute afixa horiek, nahiz eta leku hori ez dagoen sindikatuen komunikazioetarako erreserbatuta.

Nafarroako Ospitaleguneko Kudeatzailetzak zergatik ez ditu afixa horiek kendu?

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Buztintxuriko Osasun Etxean larrialdiak artatzen hasteko proiektuari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Buztintxuriko Osasun Etxean larrialdiak artatzen hasteko proiektuari

buruzkoa zen, eta 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/PES-00132).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

4/2019 Foru Lege Dekretua, urriaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri batzuk onesten dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak 4/2019 Foru Lege Dekretua onetsi du, urriaren 23koa, presako neurri batzuk onesten dituen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan, eta 2019ko urriaren 31ko 216. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. Nafarroako Parlamentuari igorri dio, horrek baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2019ko azaroaren 14ko Osoko Bilkuran eginen direla urriaren 23ko 4/2019 Foru Lege Dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. Foru Lege Dekretu horrek presako neurri batzuk onesten ditu Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan. (10-19/DLF-00004).

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatu Foru Lege Dekretua.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**4/2019 Foru Lege Dekretua,
urriaren 23koa,
Nafarroako Administrazio Publikoen
zerbitzuko langileen arloko presako
neurri batzuk onesten dituen**

ZIOEN AZALPENA

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako onetsi zuen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bateginak graduari dagokion ordainsaria arautzen du, 16., 17., 40. eta 42. artikuluetan eta laugarren xedapen iragankorrean; bertan aurreikusten da gradua funtzionarioei ordainduko zaiela graduan gora hurrenez hurren egiteko sistema iragankor bat aplikatuta, gradu jakin baten azpitik ondoko graduan 6 urte eta 7 hilabete pasa eta gero. Ordainsari hau funtzionarioari datxekiola uste izan ohi da, eta hori dela-eta irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuak ez du ordainsari hori sartzen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuan ari diren administrazio araubidean kontratatutako langileek jasotzeko eskubidea dutenen artean.

Hala ere, honi dagokionez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-72/18 gaiari buruzko epaia eman zuen 2019ko ekainaren 20an, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak planteatu zuen prozedura prejudizialean. Prozedura honek aintzat hartzen zuen Aldi Baterako Lanari buruzko Esparru-akordioaren 4. klausularen interpretazioa (akordio hau 1999ko martxoaren 18an izenpetu zen, eta Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/70/EK Zuzentarauaren eranskinean dago; zuzentaraua Europako Sindikatuen Konfederazioaren –CES–, Europako Erkidegoko Industrien Batasunaren –UNICE– eta Enpresa Publikoen Europako Zentroaren –CEEP– arteko Aldi Baterako Lanari buruzko Esparru-akordioaren gainekoa da). Epaia onorioa da gradu-ordainsa-

riaren eskubidea karrerako funtzionarioentzat gordetzeak, administrazio araubidean kontratatutako langileak bazter utzita (osagarri hori jasotzeko baldintza bakarra delarik zerbitzuan denbora jakin bat aritu izana), Europaren aipatu araua hausten duela.

Epai horren edukia ikusirik, eta bertan ezartzen den gutxieneko antzintasuna betetzen dutenez, administrazio araubidean kontratatutako langile asko graduari dagokion ordainsaria ordain diezaien eskaera aurkezten ari dira.

Beraz, graduari dagokion ordainsaria administrazio araubidean kontratatutako langile guztiei aitortu eta ordaintzeko, bidezkoa da irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretua aldatzea (Dekretu hori Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatuzeko arauak ezartzen dituena da), eta gradu-ordainsaria sartzeko administrazio araubidean kontratatutako langileek jasotzeko eskubidea daukatenean artean, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatuko den atzeraeragineko ondorioekin.

Halaber, bidezkoa da aldatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen promozioa eta prestakuntza arautzen dituen araudia aldatzea, bai Administrazio Erroaren eremuan (apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren 24.2 artikulua hein batean garatzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lanbide prestakuntza eta hobekuntza errazten dituena), baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ere (347/1993 Foru Dekretua, azaroaren 22koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko arauak ematen dituena), halako moldez non langile hauek aipatu egoeran dauden bitartean jasotzen duten gradu-ordainsaria kalkulatu baita prestakuntza-promozioan bete den lanpostuaren erreferentzia kontuan hartuta.

Beste alde batetik, aipatu dugun 68/2009 Foru Dekretuaren 12. artikulua administrazio araubidean kontratatutako langileen enplegu-baldintzak arautzen ditu, eta ezartzen du funtzionarioei aplikatzen zaien araudia aplikatuko dela oporrei, lizentziei eta baimen ordainduei dagokienez, beste gai batzuen artean, zeinen artean ez baitago zerbitzu berezien administrazio egoera. Oporrei, lizentziei eta baimen ordainduei dagokienez, aldi baterako lan-kontratudunentzat ere aplikatzekoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioei aplikatzen zaien araubidea, eta hemen ere hitzarmen kolektiboak ez du berariaz

aintzat hartzen zerbitzu berezien egoera, ez eta funtzionarioen kasuan aipatu administrazio egoera deklaratzeko bidea ematen duten kasuak ere; alabaina, langile hauei aplikatzekoa zaie Langileen Estatutuaren 46. artikulua biltzen duen nahitaezko eszedentzia, zeinak ezartzen baitu lan-kontratudunek eskubidea daukatela lanpostua gordetzeko eta antzintasuna zenbatzeko kargu publiko bat betetzeko aukeratzen badituzte, eta hori dela eta ezinezkoa bazaie lanera joatea.

Adierazi denarekin bat etorritik, administrazio araubidean kontratatutako langileen kolektiboko kideak dira kargu publiko bat betetzeko aukeratzen badituzte, eta hori dela eta ezinezkoa bazaie lanera joatea, baimena edo eszedentzia hartzeko eskubidea ez daukaten bakarrik, kontratua mantenduz eta antzintasuna zenbatuz. Horregatik, beharrezkoa da kasu hauetan berariaz aitortzea ordaindu gabeko baimena hartzeko eskubidea, beren egoera kargu publiko bat betetzeko aukeratuak edo izendatuak diren gainerako langileen egoerarekin parekatzeko.

Beste alde batetik, 6/2019 Errege Lege Dekretuak Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuan eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean sartu dituen aldaketek (aldaketok jaiotza-baimenekin, bai ama biologikoarentzat eta baita beste gurasoarentzat ere, adopzio, adoptatzeko zaintza edo harrera baimenekin dute zerikusia), ekarri dute ezberdintasun nabarmenak egotea Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren eremuko funtzionarioei oro har aplikatzen zaien araudiaren eta Nafarroako Administrazio Publikoetan aplikatzen denaren artean (azken honetan aplikatzen dena bi arau hauetan dagoena da: Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua, eta Otsailaren 7ko 6/2019 Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena).

Foru araudia Nafarroako Foru Komunitateak bere funtzionario publikoen araubide estatutarioaren arloan daukan eskumen eksklusiboa betez eman zen, eta hortaz, nahitaez bete behar da; beraz, jaiotzen eta adin txikikoak zaintzearen ondorioz ematen diren baimenek zehatz bete behar dituzte foru araudian ezartzen diren baldintzak. Hala ere, kontuan harturik 6/2019 Errege Lege Dekretuak indarra hartu zuenetik disfuntzioak atzematen ari direla Nafarroako Foru Komunitateko langile publikoei aplikatzen zaien araubidearen eta gainerako administrazio publiko-

en zerbitzuko langileei aplikatzen zaienaren artean, bidezkoa da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen lizentzien eta baimenen (jaiotzen, adopzioaren, adoptatzeko zaintzaren edo harreraren ondorio direnen) araudia aldatzea, langile hauei aplikatzen zaien araudia Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuen eremukoarekin parekatzeko, eta sartzeko arau horretan, halaber, Nafarroako Administrazio Publikoetan, otsailaren 7ko 6/2019 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik aplikatzeko den baimen osagarria.

Ezarri den araudiak, aipatu baimenak edukitzeko araubidea administrazio publikoko langileek oro har daukatenarekin parekatzeaz gain, ama biologikoa ez den gurasoaren baimenaren iraupena luzatzen du, eta izatez erditzeagatiko lizentziak duen luzerarekin parekatzen du, zeinak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen kasuan, 17 asteko iraupena baitu. Arau hau, beraz, aitzindaria da norberaren bizitza eta lan bizitza bateragarri egiteko eta gurasoen arteko erantzunkidetasun printzipioa aldezteko, biak direlarik elementu funtsezkoak gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eta tratu berdintasunaren printzipioa betetzeko.

Ildo beretik, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina aldatzen da, geroratu ahal izateko funtzionario izateko edo langile lan-kontratudun finko izateko lanpostuez jabetzea, lanpostuaz jabetu behar dena lizentzia bat izaten ari denean, erditzeagatik, adopzioarengatik, adoptatzeko zaintzarengatik, edo harreragatik, edo arrazoi berberengatik ama biologikoa ez den gurasoa izateagatik. Geroratzekak, kasu bakoitzean, etenik gabeko lizentziak irauten duen adina iraunen du.

Azkenik, beharrezkoa eta premiazkoa da kontratuaren luzapena posible egitea, udako hiletan ere, dagokion ikasturtean zerbitzua gutxienez bost hilabete eta erdiz eta aldi baterako kontratu batekin eman duten unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat, 2018ko abuztuaren 24an izenpetu zen "Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunean" biltzen den bezala.

Honaino eman diren arrazoiek justifikatzen dute honako foru lege dekretu hau onestea, aipatu neurriak berehala hartzea behar-beharrezkoa baita.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak

2019ko urriaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritik,

DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Aldatzea 68/2009 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatze arauak ezartzen dituen.

1. Irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren 11. artikuluko 1. apartatua aldatzen da (foru dekretu horren bidez arauak eman ziren Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatze), eta honela idatzita geldituko da:

"1. Administrazio araubidean kontratatzen diren langileek betetzen duten lanpostuari edo egiten dituzten eginkizunei dagozkien ordainsariak, antzintasun saria, graduari dagozkien ordainsaria eta familia-laguntza jasoko dituzte".

2. Irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren 12. artikuluko 1. apartatua aldatzen da (foru dekretu horren bidez arauak eman ziren Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatze), eta honela idatzita geldituko da:

"1. Administrazio araubidean kontratatzen diren langileei Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioentzat ezarritako araudi berbera aplikatuko zaie oporrei, lizentzia eta baimen ordainduei eta eszedentzia bereziari dagokienez. Halaber, ordaindu gabeko baimena emanen zaio kargu publiko bat betetzeko aukeratzen edo izendatzen duten langileari, kargu hori betetzeak ezinezkoa egiten duenean lanera joatea. Aipatu baimen, lizentzia edo eszedentzia emateak ez ditu inola ere kontratuaren iraupena edo kontratua amaitzeko arrazoiak aldatuko".

2. artikulua. Apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuaren aldaketa. Foru dekretu horren bidez eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren 24.2. artikulua partzialki garatuz, prestakuntza eta hobekuntza profesionala eskaintzen zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileei.

Apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuaren 5. artikuluen 1. apartatua aldatzen da. Foru Dekretu horren bidez eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren 24.2. artikulua partzialki garatuz, prestakuntza eta hobekuntza profesionala eskaintzen zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileei. Apartatu hori honela geldituko da idatzita:

“1. Zerbitzu berezietako egoeran dauden langileek zerbitzu berezietako administrazio egoeran dauden bitartean betetzen duten lanpostuaren ordainsariak jasoko dituzte”.

3. artikulua. Aldatzea 347/1993 Foru Dekretua, azaroaren 22koa, zeinaren bidez arauak ematen baitira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko arauak ematen dituen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuaren 24. artikuluan 2. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geldituko da:

“2. Barne igoeraren bidez zerbitzu eginkizunean beste lanpostu bat betetzera pasatzen diren langileek eskubidea edukiko dute lehen betetzen duten lanpostua erreserbatua izateko, izendatu baino lehen zeukaten araubide juridikoari eutsiko diote eta zer lanpostutara atxiki zaien, lanpostu horren ordainsariak jasoko dituzte.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren ordainsariezberdintasunak langileari aldi baterako eskatu zaizkion eginkizun berriak ordaintzeko dira, eta beraz, automatikoki utziko dio jasotzeari lanpostu berria uzten duenean”.

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko arauak ematen dituen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuaren 25. artikuluan 2. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geldituko da:

“2. Egoera berezian eta aktiboan dagoen denboran, jatorrizko lanpostua erreserbatuko zaio, eta izatez betetzen duen lanpostuaren ordainsaria jasoko du”.

4. artikulua. Aldatzea 11/2009 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimeen erregelamendua onesten duena.

1. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimeen erregelamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 10. artikulua aldatzen da. Honela idatzita geldituko da:

“10. artikulua. Lizentzia ordaindua, erditzeagatik.

1. Funtzionarioek eskubidea edukiko dute hamazazpi asteko lizentzia ordaindua edukitzeko erditzeagatik. Hamazazpi aste horietatik sei, erditzearen ondoz ondokoak, nahitaez eta etengabe hartzekoak izanen dira. Lizentzia hori bi astez luzatuko da (bana guraso bakoitzarentzat) haurrak

desgaitasunik badu, eta, aldi berean ume bat baino gehiagoz erditzean, bigarrenetik aurrera ere bai.

Ama zenduz gero, beste gurasoak eskubidea izanen du lizentzia osoa edo hartzeke dagoen zatia hartzeko.

2. Bi gurasoek lan egiten badute eta atsedeneko nahitaezko lehen sei asteak pasatu eta gero, lizentzia hau gurasoek nahi duten moduan hartzen ahal da, etenak eginez nahi izanez gero, betiere aldi honen barruan: erditu eta geroko nahitaezko atsedena amaitzen denetik seme-alabak hamabi hilabete betetzen dituen arte. Lizentzia etenak eginez hartuko bada, aldi bakoitzean aste osoak hartu behar dira, eta hartzen den aldi bakoitzerako, beharrezkoa izanen da 15 egun aurretik abisatzea.

3. Garaia baino lehen erdituz gero edo beste edozein arrazoi dela medio jaioberriak jaito ondoren ospitalean iraun behar badu, lizentzia jaioberriak ospitalean diraeino luzatuko da, betiere beste hamahiru astez, gehienez ere.

4. Haurra zenduz gero, lizentzialdia ez da murriztuko, salbu eta erditu eta gero nahitaez hartu beharreko sei asteko atsedenearen ondoren, lanpostura itzultzea eskatzen bada.

5. Baimen honek irauten duen bitartean, nahitaezko atsedenaldea amaitu eta gero, Administrazioak deitutako prestakuntza ikastaroetan parte hartzen ahalko da.”

2. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimeen erregelamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 11. artikulua aldatzen da. Honela idatzita geldituko da:

“11. artikulua. Lizentzia ordaindua adopzioarengatik, adoptatzeko zaintzarengatik edo harrerarengatik.

1. Adopzioaren, aldi baterako harreraren edo harrera iraunkorraren eta adoptatzeko zaintzaren kasuan, lizentziak hamazazpi aste iraunen du. Lizentzia hori bi astez luzatuko da (bana guraso bakoitzarentzat), adoptaturiko edo harreran harturiko haurrak desgaitasunik badu, eta, ume bat baino gehiagoko adopzioaren, adoptatzeko zaintzaren edo harreraren, bigarrenetik aurrera ere bai.

2. Sei aste, nahitaez, lanaldi osoz eta etenik gabe hartu beharko dira adopzioa eratzen duen epailearen ebazpenaren ondoren, edo adoptatzeko zaintza edo harrera baiesten duen erabaki administratiboaren ondoren.

3. Bi gurasoek lan egiten badute eta atsedeneko nahitaezko lehen sei asteak pasatu eta gero, lizentzia hau etenak eginez egiten ahalko da, betiere aldi honen barruan: gertaera eragile eta geroko nahitaezko atsedena amaitzen denetik seme-alabak hamabi hilabete betetzen dituen arte. Lizentzia etenak eginez hartuko bada, aldi bakoitzean aste osoak hartu behar dira, eta hartzen den aldi bakoitzerako, beharrezkoa izanen da 15 egun aurretik abisatzea.

4. Gurasoek erabakiko dute noizdanik kontatu epe hori, edo administrazioak adoptatzeko zaintza edo harrera erabakitzen duenetik edo epaileak adopzioa ebatzen duenetik aurrera. Adingabe berak ez du behin ere sortuko lizentzia honek arautzen duen aldi bat baino gehiago hartzeko eskubiderik.

5. Nazioarteko adopzio edo harrera kasuetan, gurasoek adopzioan hartuko duten haurraren jatorrizko herrialdera joan beharra dutenean, aurreko paragrafoetako kasu bakoitzerako aurreikusitako lizentzia epaileak adopzioari buruz emaniko ebazpena eman edo administrazioak edo epaileak harrerari buruz harturiko erabakia baino lau aste lehenagotik ere hartzen ahal izanen da. Horrez gain, halako kasuetan bi hilabete bitarteko baimen bat hartzeko eskubidea izanen da, aldi horretan oinarritzko ordainsariak soilik jasoko direlarik.

6. Artikulu honetan aipatzen diren adopzioa, adoptatzeko zaintza edo harrera, aldi baterakoa edo iraunkorra, aplikatzekoa den arautegian ezarriko direnak izanen dira. Aldi baterako harrerak gutxienez ere urtebete iraunen du.

7. Baimen honek irauten duen bitartean, nahitaezko atsedena amaitu eta gero, Administrazioak deitutako prestakuntza ikastaroetan parte hartzen ahalko da”.

3. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregulamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua aldatzen da. Honela idatzita geldituko da:

“16. artikulua. Ama biologikoa ez den gurasoarentzako baimena seme-alaba baten jaiotza, adoptatzeko zaintza, harrera edo adopzioarengatik:

1. Hamazazpi asteko baimen ordaindua emanen da seme-alaba baten jaiotza, adoptatzeko zaintza, harrera edo adopzioarengatik. Horietatik, gertaera eragilearen ondoz ondoko sei asteak nahitaez hartu beharko dira. Baimen hori bi astez luzatuko da (bana guraso bakoitzarentzat), jaiotako, adoptaturiko edo harreraren harturiko haurrak desgaitasunik badu, eta, ume bat baino gehiagoko

jaiotzaren, adopzioaren, adoptatzeko zaintzaren edo harreraren kasuan, bigarrenetik aurrera. Baimena hartzen ahalko da jaiotzaren egunetik, administrazioak adoptatzeko zaintza edo harrera erabakitzen duenetik edo epaileak adopzioa ebatzen duenetik aurrera.

2. Baimen hau hartuko duen gurasoak banatzen ahalko du, lehen sei asteak etenik gabeak eta jaiotzaren egunaren, administrazioak adoptatzeko zaintza edo harrera erabakitzen duen egunaren edo epaileak adopzioa ebatzen duen egunaren ondoz ondokoak izateko baldintza beteta.

3. Bi gurasoek lan egiten badute eta lehen sei asteak pasatu eta gero, baimen hau etenak eginez hartzen ahalko da, betiere aldi honen barruan: nahitaezko atsedena amaitzen denetik seme-alabak hamabi hilabete betetzen dituen arte. Lizentzia etenak eginez hartuko bada, aldi bakoitzean aste osoak hartu behar dira, eta hartzen den aldi bakoitzerako, beharrezkoa izanen da 15 egun aurretik abisatzea.

4. Baimen hau hartu nahi bada erditzeagatiko lizentziaren hamazazpigarren astea eta gero, azken lizentzia hori hartu duen gurasoak eskatu badu hamabi hilabete baino gutxiagoko seme-alaba baten edoskitzealdiaren denbora lanaldi osoetan metatzea, 17.5 artikulua arabera, aldi hori amaitzen denean emanen zaio hasiera ama biologikoa ez den gurasoaren baimenari geratzen zaizkion hamaika asteak zenbatzeari.

5. Garaia baino lehen erdituz gero edo beste edozein arrazoi dela medio jaioberriak jaiotze ondoan ospitalean iraun behar badu, lizentzia jaioberriak ospitalean diraeino luzatuko da, betiere beste hamahiru astez, gehienez ere.

6. Haurra zenduz gero, lizentzialdia ez da murriztuko, salbu eta erditu eta gero nahitaez hartu beharreko sei asteko atsedenearen ondoren, lanpostura itzultzea eskatzen bada.

7. Zerbitzuaren beharrekin bateragarria baldin bada, artikulu honetan gurasotasunagatik arautzen den baimen ordaindua lanaldi partzialean har daiteke, lanaldiaren heren edo erdi baterako, enpleguak ezarrita duen lanaldiaren lehenengo eta/edo azken orduetan. Unibertsitateaz kanpoko irakasleen kasuan, lanaldi partzialeko baimen hori lanaldiaren erdirako izanen da kasu guztietan.

Baimen hori partzialki hartzean, foru dekretu honen 12. artikulua 4. eta 5. apartatuetan ezarritako mugak aplikatuko dira kasu guztietan.

8. Baimen honek irauten duen bitartean, jaiotzaren, adoptatzeko zaintzaren edo harreraren egunaren ondoren etenik gabe hartzen diren lehen sei

asteak igaro eta gero, Administrazioak deitutako prestakuntza ikastaroetan parte hartzen ahalko da”.

4. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 17. artikulua 3. apartatua aldatu da. Honela idatzita geldituko da:

“3. Artikulu honetan biltzen den baimena funtzionarioen eskubide indibiduala da, eta eskubidea gauzatea ezin zaio aldatu beste guraso, adoptatzaile, zaintzaile edo harrera-egile bati”.

5. artikulua. Aldatzea 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duena.

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren hemeretzigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honela idatzita geldituko da:

“1. Funtzionario izateko edo langile lan-kontratudun finko izateko lanpostuez jabetzea geroratu da, lanpostuaz jabetu behar dena lizentzia bat izaten ari bada, erditzeagatik, adopzioarengatik, adoptatzeko zaintzarengatik, edo harreragatik, edo arrazoi berberengatik ama biologikoa ez den gurasoa izateagatik. Kasu bakoitzean, geroratzek etenik gabe hartzen ari den aldia amaitu arte iraunen du.

2. Lanpostuaz jabetzeko edo kontratua sinatzeko epea zenbatzen hasiko da interesdunak jaiotzarengatik, adopzioarengatik, adoptatzeko zaintzarengatik, edo harreragatik daukan lizentzia edo baimena etenik gabe izaten ari den aldia amaitu eta gero, edo lehenago, baldin eta interesdunak hala eskatzen badu. Nolanahi ere, derrigorrezko atsedenaldia errespetatuko da.

3. Kasu horietan, dagokion administrazioan emandako zerbitzu gisa aitortuko da lanpostuaz jabetzeko edo kontratua sinatzeko gerorapen epe hori. Funtzionario gisa lanpostuaz jabetzeak edo langile finko gisa kontratua sinatzeak baldintzatuko dute aitorten hori, eta horiek gertatzen direnetik hasita izanen ditu ondorioak.

4. Aurreko apartatuetan ezarritakoa aintzat hartuko da aldi baterako kontratazioak egiteko deialdietan, kontratazio horren berariazko ezaugarriek eragindako egokitzapenekin”.

6. artikulua. Unibertsitateaz kanpoko irakasleen kontratazioa udara zabaltzea.

1. Oro har, Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeetan behar berriei aurre egiteko

kontratatzaren diren irakasleen administrazio araubideko eta aldi baterako kontratuek, urte bakoitzeko urriaren 1a baino lehen izenpetzen badira, hurrengo urteko abuztuaren 31 arte iraunen dute, gehienez ere.

Urte bakoitzean urriaren 1etik aurrera behar berriei aurre egiteko izenpetzen diren irakasleen kontratuek hurrengo urteko ekainaren 30era arte iraunen dute, gehienez ere.

2. Oro har, Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeetan irakasleak ordezkatzeko izenpetzen diren kontratuek dagokion ikasturteko ekainaren 30era arte iraunen dute, gehienez ere.

3. Ikasturte batean irailaren 1etik ekainaren 30era artean 165 egun naturaleko zerbitzualdia eman duten unibertsitateaz kanpoko irakasleek, administrazio araubidean eta aldi baterako kontratuekin kontratatatu direnek, eskubidea sortuko dute beste kontratu bat edukitzeko, ikasturte horretako uztailearen 1etik abuztuaren 31ra (biak barne). Kontratu berriak dagokion ikasturtean izenpetu duen kontraturik luzeenak dituen ezaugarriak edukiko ditu, ikastetxeari, irakaskidegoari, espezialitateari, hizkuntzari, profilarri eta lanaldiari dagokienez.

4. Udan izenpetzen diren kontratuak aintzat hartuko dira ikasturte horretan bertan hartu ez diren oporren kontua erregularizatzen.

5. Maiatzaren 14ko 39/2014 Foru Dekretuaren babesean (haren bidez Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegua banatzeko neurriak ezarri ziren) administrazio araubidean eta aldi baterako kontratatutako irakasleek, ikasturte batean irailaren 1etik ekainaren 30era 165 egun edo egun gehiagoko aldi batez zerbitzuak eman badituzte, eskubidea sortuko dute beste kontratu bat izateko. Kontratu honen iraupena uztailean eta abuztuaren bi hilabeteko kontratazioa osatzeko falta den denbora izanen da.

6. Udan beste kontratu bat izateko eskubidea sortu dutenek uko egiten ahalko diote kontratu horri. Ukoa egiteko eskaera idatziz egin behar da, uztailearen 1a baino lehen. Kasu hauetan oporren kitapena eginen da, lan egindako egunak kontuan hartuz.

Lehen xedapen gehigarria. Gradu-ordainsaria administrazio araubideko langileei ordaintzea.

Nafarroako Administrazio Publikoek ondoren aipatzen diren gradu-ordainsaria eta atzerapenengatik atzeraeragina ordainduko dituzte, modu honetan:

A) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek ofizioz ordainduko diete administrazio araubidean kontratatutako langileei gradu-ordainsaria, 2019ko urtarilaren 1etik aurrera eta 4 urteko atzeraeragineko ondorio ekonomikoekin, kasu bakoitzean aitortutako antzinasunaren arabera.

B) Gainerako Nafarroako Administrazio Publikoek haiek aukeratzen duten moduan ordainduko dute gradu-ordainsariarengatik ordaindu behar duten atzeraeragina, beren aurrekontu erabilgarritasunaren arabera.

Bigarren xedapen gehigarria. Graduaren ordainketa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoek prestakuntza-promozioan bete dituzten lanpostuen mailaren arabera kalkulatu.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoek bereak ez diren beste lanpostu bat bete badute prestakuntza-promozioaren prozeduraren bidez (apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuak eta azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuak arautzen dituzte prozedura horiek) administrazioak ofizioz ordainduko die beren zerbitzuko langile finkoei gradu-ordainsaria, 2019ko urtarilaren 1etik aurrera prestakuntza-promozioan bete dituzten lanpostuen mailaren arabera kalkulatu, eta 4 urteko atzeraeragineko ondorio ekonomikoekin, atzerapen moduan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Foru lege dekretu honek arautzen dituen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuan ari diren langileen ztat ezarritako lizentziak eta baimenak, jaiotzearen, adopzioaren, adoptatzeko zaintzaren edo harreraren ondoriozkoak, aplikatzeko efektu-data.

Foru lege dekretu honetan Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuan ari diren langileen ztat araututako lizentziak eta baimenak, bai ama biologikoarentzat baita beste gurasoarentzat ere, jaiotzearen, adopzioaren, adoptatzeko zaintzaren edo harreraren ondoriozkoak, aplikatuko dira foru lege dekretuak indarra hartzen duenetik aurrera gertatzen diren gertaera eragileetan.

Laugarren xedapen gehigarria. Ama biologikoa ez den gurasoaren baimen ordaindua erditzeagatik lizentziarekin parekatzea, administrazio araubidean kontratatzeko ondorioetarako.

Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontratazio eremuetan aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onesten dituzten foru aginduetan dauden amata-

sun-lizentzietan edo erditze-lizentzietan buruzko aipuak aplikatzekoak izanen dira, baita ere, ama biologikoa ez den gurasoaren baimenetan, foru lege dekretu honek ezartzen duen moduan.

Bosgarren xedapen gehigarria. Jaiotzearen, adopzioaren, adoptatzeko zaintzaren edo harreraren ondoriozko lizentzien eta baimenen iraupenen edo baldintzen aldaketak.

1. Jaiotzearen, adopzioaren, adoptatzeko zaintzaren edo harreraren ondoriozko lizentzien eta baimenen iraupenean edo baldintzetan oro har Administrazio Publikoetako funtzionarioentzat ezartzen diren aldaketak zuzenean aplikatuko zaizkie Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioei.

2. Jaiotzearen, adopzioaren, adoptatzeko zaintzaren edo harreraren ondoriozko lizentzien eta baimenen iraupena handiagoa bada oro har Administrazio Publikoetako funtzionarioentzat aitortzen dena baino, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileei egokituko zaie, lizentzia edo baimenerako eskubidea sortzen duen gertaera eragilea gertatzen denean eta lizentzia hartzen denean egoera aktiboan izateko baldintzarekin.

Xedapen iragankor bakarra. Unibertsitateaz kanpoko irakasleen kontratuak udan luzatzea 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan.

1. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak kontratu bat eginen du 2018-2019 ikasturtean, irailaren 1etik ekainaren 30era, 165 egun naturaleko edo gehiagoko aldi batez administrazio araubidean kontratatu diren eta zerbitzuak eman dituzten unibertsitateaz kanpoko irakasleekin. Kontratu horrek 2019ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte iraunen du, eta kontratazioarekin batera kotizazioak ere sartuko dira Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, bai langilearen konturakoak direnak, baita enpresaren konturakoak direnak ere.

2. Foru Lege Dekretu honen 6. artikuluan aurreikusitakoa 2019ko irailaren 1etik aurrera egingen diren kontratuetan aplikatuko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetutako arauak

Indarrak gabe gelditzen dira foru lege dekretu honi aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, bereziki, ekainaren 22ko 42/2016 Foru Dekretua, Hezkuntza Departamentuari atxikitako ikastetxeetako irakasleen eta laguntzaileen kontratuen gehieneko iraupena zehazten duena.

Azken xedapenetako lehena. Foru lege dekretu honek ukitzen dituen erregelamenduzko xedapenak aldatzeko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege dekretu honek ukitzen dituen erregelamenduzko xedapenak aldatzeko, indarreko araudiarekin bat etorritz.

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako

Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua 2. apartatua ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

